

## Maite Garciak bikain cum laude lortu du bere doktore tesian

2011/07/01

Goizeko 10:30ean dena prest zegoen HUHEZIn Maite Garcia has zedin bere tesiaren defentsan. Gaia: **"Enfoques de aprendizaje y otras variaciones cognitivo-motivacionales en alumnos universitarios de primer curso"**. Tesi honek helburua izan du aztertea zein aldagaik eragiten duten unibertsitatean kalitatezko ikaskuntzan. Eta egiaztatu du lehen ikasturtean ikasleek modu positiboan aurreratzen dutela kalitatezko ikaskuntzarantz, handitu egiten baita ikaskuntza enfoke sakona.

Bi zuzendari izan ditu Maitek tesia egiteko: **Iñaki Garcia** eta **Juan Carlos Torre**. Defentsa egunean, berriz, doktore hauek izan zituen epaimahaian: **Conchi Yañiz** (Deustuko Unibertsitatea), **Belen Urosa** (Comillasko Unibertsitatea), **Pello Jauregi** (EHU), **Pili Sagasta** (MU) eta **Mariam Bilbatua** (MU).

Bukaeran, epaimahaiak bikain cum laude eman zion Maiteren lanari. [Flickr-en ikus daiteke defentsako argazkiak.](#)

